

Enpresagintza Fakultateak formakuntza programa bat eskeini dio Happy Bridge kooperatiba korearrari.

2015/02/16

Enpresagintza Fakultateak Mondragon Taldeko enpresa eta antolaketa ereduaren inguruko formakuntza programa bat eskeini dio Happy Bridge kooperatiba korearrari.

Mondragon Taldeko ereduaren inguruko formakuntza kurtsoak honako helburuak izan ditu:

- Mondragon Taldeko antolaketa eredu eta funtzionamendua ezagutzea.
- Mondragon Taldeko esperientzian garatutako interkooperazio mekanismoak ezagutzea.
- Hezkuntza ereduaren eta bazkide, zuzendari eta taldeko langileen formakuntzan sakondu.
- Mondragon Taldeko berrikuntzaren sustapenerako tresnak ezagutu.

Kurtsoak izaera oso praktikoa izan du eta klaseak eta kooperatiba eta erakundeetara bisita teknikoak tartekatu dira. Formakuntza urtarillaren 26 eta otsailaren 13an artean garatu da Mondragon Unibertsitateko Oñatiko Enpresagintza Fakultatean.

Happy Bridge kooperatiba korearrak "Strategy and study team" deituriko talde bat osatu du. Talde honek bi helburu nagusi ditu:

- Berrikuntza proposamenak planteatu Happy Bridge-n negozio ereduaren.
- Talde kooperatibo baten konfiguraziorako proposamen bat diseinatu Happy Bridge kooperatibari.

Helburu bikoitz honekin planteatu dute hiru asteko kurtso intentsibo hau Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean.

